

## Euskararen kutxa

# Puntuazioa lantzen

*Pello Esnal*

*Aurtengo ikasturtean, 2005-2006an, hasi ziren bost euskaltegi ematen, lehenengo aldiz, euskalduntzearen laugarren mailako ikastaroak. Eta 2006-2007an hasiko dira beste batzuk. Aukera egokia da HEOKaren (Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikuluaren) planteamenduan sakontzeko eta, bide batez, lehen hiru mailetan landutako hainbat gai gehiago jorratzeko. Besteak beste, puntuazioarena.*

*Planteamendu komunikatiboa barneratzen den neurrian, bestelako dimentsioa hartzen du hizkuntzaren ohiko hainbat gaik. Baita puntuazioarenak ere. Normalean, gramatikaren baitan ikasi eta landu ohi da, eta ortografiaren alorrean. Baina ikuspegi komunikatibotik aritzean, gaitasun testualaren eta gaitasun estrategikoaren eremuetan ere sartzen da.*

*Lan hau, nahiz eta helduen euskalduntzearen laugarren mailako ikasleei begira prestatu, baliagarria izan daiteke beste mailakoentzat ere.*

Era askotan landu daiteke puntuazioa. Era sistematikoa da ohikoena. Hemen, ordea, ikuspegi didaktikotik egingo dugu; hau da, kontuan izanda euskalduntzen (eta alfabetatzen) ari diren helduen ikas-prozesua.

Horregatik, hasteko, hiru aldi bereizi ditugu puntuazioa ikasteko ibilbidean: hasierako urratsak, belarriaren agindura egiten direnak; urrats erabakigarriak, belarriaz haratago doazenak; eta urrats gorenak.

Bestalde, adibide ugari erabili dugu, eta horietako asko *Irakurbideak* liburutik hartu. Arrazoi batengatik, batez ere: idazle askoren testuak datozelako bertan eta gaurko ortografiara moldatuak. Gainerako adibideak, batzuetan –oso gutxitan–, apur bat ukitu behar izan ditugu, gaurko ortografiaren arabera.

Dena den, lehen saio honetan, ez ditugu puntuazioaren baitako gai guztiak jorratzen, ezta puntuazio-marka guztiak ere, amaieran ikusiko dugunez. Ibiliz jarraituko dugu bidea egiten.

### **1. Lehen urratsak: belarriaren agindura**

Hiru uste aurki ditzakegu –hiru aurreiritzi– puntuazioa gutxi landu duten ikasleen artean: 1) puntuazioa ez dagoela araututa, 2) belarriaren agindura jartzen dela puntuazioa eta 3) zenbat eta koma gehiago izan, orduan eta kategoria handiagoa duela idatzi batek.

Eta idaztean, uste horien arabera jokatzeko du ikasle askok. Batez ere, 1) belarriaren arabera jartzen dituzten komak: hitz egitean non pausaldia egin, idaztean han jarri koma; 2) belarriaren legeak ez dio balio, ordea, puntuak jartzeko orduan; komak ipintzen baititu horien ordean, hauen ugaritasuna goi-mailako idatzen ezaugarria delakoan.

Dena den, hasiera egokia izan dakiguke puntuazioa belarriaren agindura lantzen hastea, oinarrizko bereizketa bat lagun: goranzko eta beheranzko pausaldi prosodikoen artekoa. Goranzko pausaldiak, gorako intonazioak eta geldialdi laburraz egiten ditugu; beheranzkoak, beherako intonazioak eta geldialdi luzeagoak.

Bereizketa horrek lagunduko digu komak eta puntuak non jarri ikasten hasten eta, bide batez, bi puntuen erabilera ere lantzen.

#### *1.1. Komak*

Koma da, noski, puntuazio-markarik erabilgaitzena. Baina baita ikasten hasten lehenengo ere; hain zuzen, zerrendetan.

##### *• Zerrendetan*

Koma, lehenik eta behin, zerrendetako osagaiak bereizteko erabili ohi da. Adibidez:

Denok ditugu gogoan horretan [euskarari lege bat ematen] saiatu direnen izenak: Arana, Azkue, Txomin Agirre, Lizardi, Altube, eta abar.

Luis Villasante (*Irakurbideak*: 7)

Gure baserri horien distira hitzez agertzerik ez dago: geure jaioleku, asaben bizileku eta hiltoki, han jaiak, han negarrak, belar onduaren usaina, zakur zaunkalaria, atariko intxaurrendoa...

Jon Andoni Irazusta (*Irakurbideak*: 263)

Erneak ziren Joanesen belarriak. Oso egina zegoen Joanes mendiko oihartzun guztietara. Hamaikatz aldiz entzungo zituen, bakartasunaren erdian jarrita zegoela, urrutiko trumoiaren orroa, ekaitz-haizearen durundia, artzainaren deiar luzea, egurgilearen aizkorakada neurtua, basurdearen arnasotsa, otsoaren alarua, azeriaren zaunka, behorren irrintzia, mozoloaren oihua, basahuntz beldurtiaren zalaparta, abere-arranaren dulun-duluna, ardiaren balaka negartia, suge zaharraren txistua, belearren garrasi latza, zozoaren txortxorra, txori kantariaren txorrotzio alaia, errekaostoen poil-poila, zuhaitz-hostoen pir-pir biguna, eltxo gogaikarrien zumburruntxo...

Txomin Agirre (*Irakurbideak*: 17)

Zein dira, bada, egiaren etsaiak? Gezurrezko irudipenak, isil-ezkutaketa eta estalketa, azpikeria, gezurra, beldurrarazi nahia, zitalkeria, hitz-aldaketa, iraina, bidegabekeria, gezur-hitz sinespena, harrigarrikeria, grina, eztabaida, funtsgabezia edo fundamenturik eza, askatasunik eza azkenik. Ez da txantxetako zerrenda.

Joxe Artetxe (*Irakurbideak*: 115)

Hasieran gaude. Eta askoz ere egiteko gehiagotarako erabili ohi da koma. Baina horiek ikasteko egokiena, agian, aurretik beste zenbait marka erabiltzen ikastea izango dugu.

## 1.2. Puntua

Erraza da puntua erabiltzen ikastea, batez ere arestian salatutako uste okerra zuzenduz gero. Ez baita egia “zenbat eta koma gehiago, orduan eta aberatsagoa idatzia” edo “zenbat eta puntu gehiago, orduan eta pobregoa”.

Azken batean, gidari ona dugu belarria puntuak jartzen ikasteko. Nahikoa da beheranzko eta goranzko pausaldi prosodikoak bereiztea. Eta, behin bereizketa hori egin ondoren, arau bat ikastea: beheranzko pausaldi prosodikoa ia beti puntuz adierazten da.

Orixek, adibidez, honela kontatzen du Santa Kruz apaizaren ihesaldieta-ko bat (*Irakurbideak*: 362):

Aiatik Arroara jo zuten santakruztarrek, goseak eta ahuleriak akiturik. 1873ko otsailaren lehena zen. Laurogeita hamar lagun zituen Santa Kruz apaizak, denak oso bihozgabetuak, Aiakoa ikusita. Bazen bihozgabetzeko adina! Gainera, muniziorik ez, eta hamar lagunentzat eskopeta bat.

Arroatik Itziarra sartu ziren. Ez, noski, han sutondoan hanka-zabal egote-ko, elurrarekin sutondo-giro bazegoen ere. Eta elurra bazen, esanik dago haien atzetik izango zirela liberalak, oin-aztarna hartuta. Santakruztarrei uxaldia eman zietenean, berauen atzetik hasi ziren; baina ihes dabilenak, oinak arin.

Zer egin omen zuen apaizak? Itziarko alkatea deitu, herrian zeukaten petrolio guztia aterarazi (hamalau lata, beste horrenbeste gizonekin) eta... Goazen mutilak, Debako liberal mordoa izutzeraz, herriari su emateko zurrean! Hala, biharamun goizeko lauretan, Kandelario egunean, meza entzun, gosalduta eta, elurraren gainetik, Debara. Itziarko hamalau gizonekin, ehun eta lau zeramatzan (Piralak dioenez, zortziehun omen ziren).

Tiroka atera bide zitzaizkien Debakoak; baina santakruztarrek, etxeen babesean, aurrera. Herriari su eman behar ziotelakoa egin, eta herria ikaratu. Arren, herririk ez erretzeko!

Santa Kruzek bi letra egin liberalei: beren buruak emateko. Baita liberalek Santa Kruzekin hitz egin eta armak eman ere: hogeita hamalau eskopeta eta bost mila kartutxo Remington. Zegoen eguraldiarekin, santakruztar gizajonek jantzi osorik ere ez, eta liberalei txamarrak kendu zizkieten.

Bai. Ia beti puntuz adierazi du Orixek beheranzko pausaldia. Baina baita puntu eta koma [;] eta bi puntu [:] erabiliz ere. Dena den, bi azken zeinuak erabiltzen ere erraz ikas daiteke.

Puntu eta komarena azken urratsetarako utzita, ikus dezagun orain bi puntuen erabilera.

1.3. *Bi puntuak* Batik bat, honako hauetan baliatzen dira bi puntuak:

- 1 Gutunen eta antzekoen aurkezpenetan.
- 2 Elkarrizketetan, norbaitek esango duena iragartzeko.
- 3 Adibideen edo zerrenden aurretik.
- 4 Aipuen aurretik.
- 5 Esaldiaren aurreko zatia argitzera, frogatzera, azaltzera edo laburbiltzera datorren hurrengo zatiaren aurrean.

• *Gutun-hasieretan*

Normalean, deikiaz hasten dira gutunak, eta deikiaren ondoren bi puntuak ipiniz.

Adiskide hori:

Atzo jaso nuen zure gutuna. Ikusten dudanez...

• *Elkarrizketetan*

Elkarrizketetan ere bi puntuak erabiltzen dira, norbaiten hitzen aurretik. Hala daude, esaterako, Azkuek Nafarroako Beran jaso eta *Euskalerriarren Yakintza*-n argitaratutako “Solas itsusiduna” izeneko pasadizo hone-tan (*Irakurbideak*: 182):

Mutiko batek txerriak eramaten zituen mendira, bazkatzera. Haietakoren bat edo bertze gibelerat itzultzen zitzaionean, mutikoa, haserre, biraoka hasten zen:

–Arraio mila demonioa!

Amak errieta egiten zion arren, ezin ohitura utzi. Mutikoak aitortzera joan behar zuen batean, amak esan zion apaizari:

–Gure mutikoak sekulako biraoak esaten ditu. Berorrek mehatxu egin behar dio horrelako solas itsusirik ez esateko.

Mutikoa agertu zenean, apaizak esan zion:

–Ez sekula esan birao hori! *Arraio mila demonioa!* esaten denean, infernuko demonioa gora igotzen duk; eta *Jesus, Maria eta Jose!* esaten denean, behera hondoratzen.

Aitortza egin ondoren, han hasi zen mutikoa:

–Arraio mila demonioa! Jesus, Maria eta Jose! Arraio mila demonioa! Jesus, Maria eta Jose! Arraio mila demonioa! Jesus, Maria eta Jose! Arraio mila demo...

–Zer ari haiz, mutiko?

–Infernuko demonioa gora eta behera erabiltzen, leher eginarazteko.

• *Zerrenden aurretik*

Nonahi eta noiznahi aurkituko dugu hirugarren erabilera hau ere. Esaterako:

Denok ditugu gogoan horretan [euskarari lege bat ematen] saiatu direnen izenak: Arana, Azkue, Txomin Agirre, Lizardi, Altube, eta abar.

Luis Villasante (*Irakurbideak*: 7)

Txomin Agirrek (Ondarroa, 1864 - Zumaia, 1920) leku nabarmena du euskal literaturan. Bera dugu, izan ere, lehen euskal eleberrigilea. Hiru eleberrri idatzi zituen: *Auñemendiko Lorea* (1898), *Kresala* (1901) eta *Garoa* (1907).

*Irakurbideak*: 28

- *Aipuen aurretik*

Bi eratan aipa daitezke norbaitek esandakoak: 1) hitzez hitz edo 2) zeharka edo laburbilduz. Eta bi puntuen ondoren. Esaterako:

Hiru eleberrietan, helburu berbera du Agirrek, Ana Mari Toledok dioenez:

“*Irakatsi eta atsegin eman* da Agirrek bere eleberrien bidez erdietsi nahi duen helburua. Horretarako euskal historiari eta bizitzara hurbildu eta modu poetiko eta mitiko batez birsortzen ditu.”

Gehiago ere badio Toledok: ahozko kontaketa baino harago doala Agirre eta tesi-argumentazio-korolario moduan moldatu dituela zenbait kapitulu; osagarri narratiboak eta diskurtsiboak dituela nagusi, nobelak eta saiakerak bere-bereak dituzten bi osagai horiek konbinatuz; eta bakarka irakurtzekoak direla Agirrearen hiru eleberriak, halako hizkera-maila, tonua, deskribapenak eta abarrak izaki.

*Irakurbideak*: 28

- *Aurrekoa argituz eta azalduz*

Sarri erabili ohi dira bi puntuak aurretik esandakoa argitzeko edo azaltzeko; batzuetan, aurrekoa argituz edo frogatuz (horrelakoetan, *izan ere* lokailua ipin daiteke bi puntuen ondoren); bestetan, aurrekoa azalduz edo laburbilduz (horrelakoetan, *hau da*, *alegia*, *hain zuzen* edo antzeko testu-antolatzailearen bat ipin daiteke bi puntuen ostean).

Bigarren erabilera honetakoak ditugu, esaterako, Koldo Mitxelenaren bi hauek, MEIG (*Mitxelenaren Euskal Idazlan Guztiak*) liburu-sortatik har-  
tuak:

Euskaldun gehienok, guziok ezpada, badugu geure barrendegian txoko urri eta apaindura gabeko bezain maite bat: gure euskal baratzea.

Koldo Mitxelena (*MEIG*, 24: 29)

Ulysseren ibilerek [...] erakusten digutena haxe da: jainko etsaiei, Izadiaren indar itsuei alegia, gogor egitean dago gizonaren handitasuna.

Koldo Mitxelena (*MEIG*, 21: 147)

Lehen erabilera, berriz, Joxe Ramon Zubimendiren “Aresti, igarle” artikulua-  
ren azken zatian dugu, bi aldiz: 3. eta 4. lerrokatetan. Baina beste

bost aldiz ere badarabiltza: aipuen aurretik lautan (2, 5, 6 eta 7. lerroka-detan) eta behin (8. lerrokadan, amaiera-amaieran) aurretik esandakoa zehaztuz.

Aresti hil zenean, adiskide Joseba eta biok joan ginen zenduaren aldeko elizkizunetara. Bilbora gindoazela, autopistan berri ginen hilabete pare bat lehenago gertatutakoa. Donostian biltzekoak ginen Arestirekin eta Editor deituko dudan batekin. Gogoan dut udaberri hasierako eguraldi zoragarri eder hura, eta gogoan dut Joseba eta biok beste bien zain eta zain egon ginela.

Berandu batean azaldu zen Editor, bakarrik: Aresti gaixorik zegoela eta ez zetorrela. Ezer larririk ez, noski, Arestik berak telefonoz esan omen zionez.

Asmo genuenez, elkarrekin bazkaltzera joan ginen; baina Editorrek ez zigun ia jaramonik ere egin guri: alboko mahaiko minigonadun baten izterretara joaten zitzaizkion begiak, eta begien atzetik, gogoa (eta, gero, alde-rantziz).

Aresti oker zegoen, ordea: gaitz larriak zeukan gaixorik, zoritxarrez.

Arestiren hiletetan, Bilboko elizaren ilun tristea! Gogoan dut, gainera, zerau pentsatu nuela bertan: bere hirugarren alabari Andere Bihotz izena ezartzen dion gizonik ez dela erabat hiltzen.

Osterakoan, isilik itzuli ginen, puska batean, Joseba eta biok. Gero, adiski-deak bat-batean jakinarazi zidan sekretua; gaur arte, hogeitaz, neuretzat gorde dudan sekretua:

–Berarekin hitz egin nuen azken aldian, zera esan zidaan Arestik: bera zela bere belaunaldiko euskal idazleetan garaiena, eta ni izango naizela gure belaunaldikoen artean gailena.

Adiskide legez, ontzat hartu nion aitorten pozgarri hori. Gaur, hogeitaz urteren buruan, bistan da igarle izan genuela Aresti; artean gertatzeko zegoena asmatu egin baitzuen, ezkutuan zegoena igarri, ezezagun zena ezagutu. Izan ere, irakurle, adiskide Josebak izenordea erabiltzen baitu literatur lanetan; oso izenorde ospetsua: Bernardo Atxaga.

*Bidezkoak: 180-181*

## **2. Urrats erabakigarriak: belarriaz haratago**

Belarriak asko lagun diezaguke puntuazioa lantzen lehen urratsetan, goranzko eta beheranzko pausaldiak bereiziz. Baina baditu bere mugak ere. Eta, muga horiek gainditzeko, funtsezkoa dugu beste bereizketa bat egitea: orain, pausaldi prosodikoaren eta pausaldi ortografikoaren artean.

Badugu, ordea, egin beharreko hirugarren bereizketa bat ere: pausaldi ortografiko bakunen eta bikoitzen artekoa. Eta honetan, batzuetan lagun-garri izango dugu belarria, baina bestetan ez.

Bereizketa horien harian, hiru gai jorratuko ditugu bigarren puntu honetan ere: lehenik, pausaldi prosodikoak eta pausaldi ortografikoak; ondoren, oinarrizko bi lege; eta, azkenik, koma bikoitzak.

## 2.1. Pausaldi prosodikoak eta ortografikoak

Beti ez datoz bat pausaldi prosodikoak eta ortografikoak. Hala, testu bat irakurtzerakoan, gelditu egingo gara zenbait momentutan, nahiz eta komarik egon ez. Adibidez, har dezagun Lauaxetak *Euzkadi* egunkarian 1931n idatzitako pasarte bat (*Irakurbideak*: 317):

Neguak agur egin digu. Haize hotza inguruetan dabil, zuhaitzetan diren orriei atzamar gogorrez heldu nahirik. Olerkari itunak zerura begira jarriko ziren. Ikusiko duzu zenbat bertso eder edo poema etorriko den egunkari honetara, neguaren goralpenak esaten!

Irakur dezagun astiro, doinua emanaz, pausaldiak nabarmenduz... Eta ohartuko gara nola barraz (/) adierazitako beste lau pausaldi ere egin ditzakegun, komei eta puntuei dagozkienez gain.

Neguak (/) agur egin digu. Haize hotza (/) inguruetan dabil, zuhaitzetan diren orriei atzamar gogorrez heldu nahirik. Olerkari itunak (/) zerura begira jarriko ziren. Ikusiko duzu (/) zenbat bertso eder edo poema etorriko den egunkari honetara, neguaren goralpenak esaten!

Beraz, gutxienez, hamar pausaldi prosodiko ditugu pasartean: sei, puntuazio-markaz adierazita (lau, puntuz; eta bi, komaz), eta beste lauak, puntuazio-markaz adierazi gabeak.

Ez. Ez datoz beti bat pausaldi prosodikoak (hizketan eta irakurtzean egi-ten ditugunak) eta pausaldi ortografikoak (puntuazio-markaz adieraziak). Gehiago ere zehatz dezakegu: puntuazio-markek (ia) beti adierazten dute pausaldi prosodikoa, baina ez dira pausaldi prosodiko guztiak adierazten (ez puntuazio-markaz eta ez bestela).

## 2.2. Oinarrizko bi lege

Puntuazioa belarriaren agindura jarriz gero, ohikoa litzateke koma ipintzea bai subjektuaren eta aditzaren artean, bai aditzaren eta osagarriaren artean. Adibidez:

Goizeko zazpietako tren, ordu erdi beranduago etorriko da.

Arduradunak esan du, kontuz ibiltzeko horrelako kontuekin.

Baina, hain zuzen, gehiegizkoak dira koma horiek. Pausaldi prosodiko horiek adierazteko, ez da koma bakuna erabiltzen. Adierazi nahi izanez gero, koma bikoitzak baliatu beharko ditugu, aurrerago ikusiko dugunez. Aurrerago ikusiko dugu, era berean, salbuespen bat: koma erabili behar dela subjektua mintzagai hanpatua denean.

### **Subjektuaren eta predikatuaren arteko pausaldi prosodikoa ez da koma bakunez adierazten**

Gogora dezagun Lauaxetaren pasartea:

Neguak agur egin digu. Haize hotza inguruetan dabil, zuhaitzetan diren orriei atzamar gogorrez heldu nahirik. Olerkari itunak zerura begira jarriko ziren. Ikusiko duzu zenbat bertso eder edo poema etorriko den egunkari honetara, neguaren goralpenak esaten!

Halaber, gogora dezagun nola, pasarte hori irakurtzerakoan, gutxienez beste lau pausaldi egin ditzakegun, komaz eta puntuz adierazitakoez gain: barraz (/) adierazitako laurak.

Neguak (/) agur egin digu. Haize hotza (/) inguruetan dabil, zuhaitzetan diren orriei atzamar gogorrez heldu nahirik. Olerkari itunak (/) zerura begira jarriko ziren. Ikusiko duzu (/) zenbat bertso eder edo poema etorriko den egunkari honetara, neguaren goralpenak esaten!

Barraz adierazitako pausaldi horiek leku jakina dute esaldian: hiru lehenengoek, subjektuaren eta predikatuaren artekoa; eta laugarrenak, aditzaren eta osagarri zuzenaren artekoa.

Baina ez lehenengo hiru pausaldi prosodikoak eta ez laugarrena adierazten dira komaz, nahiz eta behin baino gehiagotan horrela egin zenbait idazlek. Idazkera zaintzen dutenek, ordea, ez dute koma ipiniko. Hona ondoren, Koldo Mitxelenaren bost esaldi. Luze samarrak izanagatik eta pausaldi prosodikoak eginagatik ere, ez daramate komarik subjektuaren eta predikatuaren artean:

Eta herri batean luzaroan egon behar zuena saiatzen zen bertako hizkuntza ikasten.

*MEIG, 21: 71*

Gogorra baita eri larri baten ohe ondoan gaudenean haren hizkuntzan mintzatzeko gauza ez izatea.

*MEIG, 21: 72*

Min ematen dit niri behintzat euskaldunen ahotan maiz asko entzuten diren zenbait mordoilokeria entzuteak.

*MEIG, 21: 79*

Hutsik egin nahi ez duenak hobe du beste lanbide bati ekin.

*MEIG, 21: 83*

Zer balio dute hitzetik hortzera barreiatzen ari garen hutsaren hurrengo hitz merke horiek?

*MEIG, 21: 83*

Dena den, aurreratu dugunez, idazle onek badakite irakurleari bideak errazten eta pausaldi prosodikoak bestelako baliabidez adierazten.

### **Aditzaren eta osagarrien arteko pausaldi prosodikoa ez da koma bakunez adierazten**

Aditzaren eta osagarrien artean ere ez da koma bakuna ipini behar, nahiz eta hizketan pausaldi prosodikoa egin. Horrela jokatzeko dute idazle onek. Adibidez, Koldo Mitxelenak, datozen lau esaldietan ez zituen komaz bereizi aditza eta osagarria, nahiz eta pausaldi prosodikoak hala egitea eskatu.

Esango nuke odola bera baino lokarri sendoagoak elkartzen gaituela.

*MEIG, 21: 69*



Lagun-artean azaldu nuen asmoa etorri orduko eta berehala esan zidaten bazela hemen euskal irakasle bikain bat, Ayuntamientokoa, Maria Dolores Agirre.

*MEIG, 21: 69*

Gupidarik gabe banatu ditu Bardem-ek burutik burura gertakaria Espainiako lurreen landatzen duten bereizgarriak.

*MEIG, 21: 170*

Ez dut inoiz ulertu San Agustinek haurtzaroarekiko agertzen duen nakaitza eta ezin-ikusia.

*MEIG, 21: 171*

Honako ere balio du goraxeago egindako oharrak. Alegia, idazle onek badakitela irakurleari bideak errazten eta pausaldi prosodikoak adierazten. Adibidez, Txomin Agirrek:

Askotan esan ohi dugu, eta egiaz!, gure baserritarrak txit samur begiratzen diola ukuiluko abereari.

*Irakurbideak: 25*

### 2.3. Koma bikoitzak

Batzuetan, idazten ari garela, argibide bat sartu behar izaten dugu testuan. Orduan, parentesi artean jarri ohi dugu argibidea, edo bi marra luzeren artean. Adibidez (*Idazkera-liburua: 74*):

Zumalakarregi (1788-1835) Ormaiztegin jaio eta Zegaman hil zen (San Joan egunean).

Oso maitea zuten mutilek –osaba Tomas deitzen omen zioten–; beldur zioten etsaiek.

Baina bi koma artean ere jar dezakegu argibidea:

Zumalakarregiren batailoiak, inoiz baino ugariagoak neguaren bukaeraz geroztik, Ebro ibaiaren inguruan ibili ziren gehienbat.

Bikoitzak deituko diegu koma horiei; binaka joaten baitira beti. Eta tartekia deituko diegu bi koma arteko esaldi-zatiari.

Baina, irakurtzen ari garela, nola jakin testu bateko komak bikoitzak diren ala bakunak? Nola jakin tartekia dela esaldi-zati bat? Irakurlearen gain geratzen da erabat hori: testua irakurri ahalean ohartu beharko du horretaz. Horretan ere ikasten dugu irakurtzen ikastean.

Hemen, tartekiak oro har landuko ditugu lehenik; eta ondoren ikusiko dugu nola doazen koma artean aposizio ez-murrizgarriak, aposizioko erlatiboak, deikiak edo bokatiboak, eta hainbat testu-antolatzaile (lokailu, testu-markatzaile eta gainerako).

#### • *Tartekiak: oro har*

Akordagoitia idazlearenak dira honako lau pasarte hauek (*Irakurbideak: 47-48, 50, 58, 59*). Azpimarratuta doaz koma arteko tartekiak.

Txinatarren irakasle nagusia Konfuzio da. Bere irakaspenak han eta hemen zabaldu zituen, toki askotan, Jesukristo jaio baino seihun bat urte lehenago. Ordutik hona ez du Konfuzio adinako beste batek bururik goratu: hark irakatsiak izan dira hemengo eginbidearen artezkariak. Eta –bene-tan diot– irakaspen horiek ez dira hain txarrak edo okerrak; baina bai zerbait laburrak.

Berton aurkitu nuen, behin, bilbotar marinel edo itsasgizon bat. Hark esan zidan bera itsasoetan zebilela azken hogeita hamalau urte –uste dut zirela– haietan, eta sarri ibili izan zela Ameriketako Amazonas eta Mississippi ize-neko ibaietan ere; baina ez zela inoiz hain urruti sartu, Txinan adina, itsa-sotik lehorrerantz.

Lotsagalduko mutilen bat ausartuko balitz neskabila bati harreman-berbarik egitera –nahiz eta hitzik garbienak esan–, neskatilak berak ihes eragingo lioke, erremuskada edo purrustada garratza eginda edota, beharbada, belar-rondoko galanta emanda.

Hara hor, bada, emakumeak baino gizonezkoak gehiago izanik, zergatik ez den hemen neskazaharrik aurkitzen. Hemengo neskatilak, denik motzenak ere, senargai faltagatik ez zaizkizu ezkondu barik geratuko inoiz. Eta horiek ez ezik, andre alargun gazteek –baita zahartxoagoek ere, gura izanez gero– beti aurkitzen dute euren gura den gizonezkoren bat.

Guztira, koma arteko zazpi tarteki dira (eta marra arteko lau). Zazpiak kenduta ere, esanahidun izaten jarraitzen dute esaldiek (nahiz eta zertxo-bait galdu edukia). Eta zazpiak doinu berberaz irakurtzen dira: tarteki-doinuz (marra arteko lauak bezala).

- *Aposizio ez-murrizgarriak*

Tartekien artean, aposizio ez-murrizgarriak daude, eta koma artean idaz-ten dira beti (esaldiaren amaiera ez badira, behintzat). Adibidez (*Irakurbideak*: 209):

Basajaunak, Euskal Herriko baso-oihanetako nagusiak, gizandi iletsuak omen ziren, indartsu apartak eta ibiltari bizkorak. Artaldeen begirale omen ziren, abereen babesle, otsoen uxatzaile.

Ez dira nahastu behar aposizio murrizgarriak eta aposizio ez-murrizga-riak (*EGLU I*: 306-312). Esaterako, murrizgarriak dira *liburua* eta *idaz-lea*, honako bi esaldi hauetan:

*Gero* liburua 1643an argitaratu zen. Axular idazleak idatzi zuen.

Beste bi hauetan, berriz, ez-murrizgarriak ditugu *Axularren liburua* eta *Pedro Agerre izen-deituraz*:

*Gero*, Axularren liburua, 1643an argitaratu zen. Idazlea, Pedro Agerre izen-deituraz, Urdazubin jaio zen 1556an.

Izan ere, bi azkeneko hauek, lehenengo biek ez bezala, aurrekariak (*Gero* eta *Idazlea* hitzek) esandakoa errepikatzen dute, beste era batera; eta, haiek ez bezala, koma artean ipini behar dira.

Era berean:

Baina hauek, fede gabeko txinatar errukarriok, ez dute inoiz entzun horrelako irakaspenik.

Akordagoitia (*Irakurbideak*:47)

• *Erlatiboa aposizioan*

Honela mintzo da *Euskal Gramatika Osoa*, "Erlatiboa aposizioan" puntuan (676. or.):

Maiz, euskara mintzatuan eta perpaus luzeak direnean batez ere, erlatibozko perpausak ondokoaren aurrean jarri beharrean, *aposizioan* jarri ohi dira. Ikus dezagun adibide bat:

**a** [*Neska horren ondoan jesarrita dagoen*] mutil hori Josu da.

**b** Mutil hori, [*neska horren ondoan jesarrita dagoena*], Josu da.

Bigarren adibidean (b) ikus daitekeenez, ondokoa (*mutil hori*) aurrean jarri dugu eta erlatibozko perpausa atzean ipini dugu koma artean, aposizio gisa.

*Irakurbideak* liburukoak dira, esaterako, ondorengo bi pasarteak, biak erlatiboa aposizioan dutenak. Basilio Pujanarena da lehenengoa:

Gure trintxera, Intxorta txikian, berezko lubakia zen: baso-gurdibide bat, bazterrean harlosa handi batzuk zeuzkana (batez ere beheko aldean), guretzako ondo etorri zirenak.

*Irakurbideak*: 370

Ustekabeko emaitza izan zen [Uztapideren] prosazko liburua, eta oso harrera eta ondorengo onak izan zituen. Batetik, harrিতa utzi zuen kritika; eta, bestetik, Antonio Zavalak aitortu digunez, bati baino gehiagori esanarazi zion: "Neuk ere egingo nuke antzekoa". Horrela hasi omen ziren batzuk, ordura arte oso gutxi idatzi zutenak, beren autobiografia idazten.

*Irakurbideak*: 383

• *Deikiak edo bokatiboak*

Tarteki-doinua, ordea, ez da hain nabarmena koma arteko guztietan. Esaterako, deikietan.

Izan ere, deikiak –norbaiti edo zerbaiti dei egiteko erabiltzen den izenak- edo- koma tartean joan behar du beti (esaldiaren hasiera edo amaiera ez bada, jakina). Hala ere, pausaldi bakarra egiten delako- edo, askori ahaztu egiten zaio komak ipintzea (gehienetan lehenengoa). Deikiak biak behar ditu, ordea; Atxukaroren pasarte honetan bezala (*Irakurbideak*: 156-158).

Basetxe hartan mutil bat beste seme-alabarik ez zuten. Mutil horren gurasoek, jakina denez, beren seme bakar horrengan zeukaten etxeari jarraipena emateko itxaropena.

Mutilari, ordea, ez zitzaion sortzen neskatarako grina edo kezkarik. Ezkontza-arrastorik ez zegoen harengandik.

Amak, ahalegina, bultza egiten zion:

(...)

– Errotako Terexa zer iruditzen zaik, Joxe Mari?

– Zer, ba?

– Terexarekin ezkondu behar huke.

– Ez, ama, ez; ni ez naiz inoiz ezkonduko.

– Joxe Mari, gu zahartzen ari gaituk, eta andre berria ondo etorriko duk gure etxean. Umeak ere bai, ondorengoak behar ditiagu eta.

– Ezetz, ama, ezetz!

– Begira, Joxe Mari: galtza berriak egingo ditiat, ba. Eta blusa ere bai; botoi txuriduna, gainera.

Ezkontzeko konforme, mutila.

#### • Lokailuak

Lau sailetan bana ditzakegu testu-antolatzaileak (Elosegi, Esnal, 2004: 69-72). Lehen sailekoak dira testu-markatzaileak, lokailuak barne. Eta hauek lantzen hasiko gara hemen.

Euskal lokailuetan, *EGLU-III* liburuaren arabera, bost mota bereizten dira: 1) emendiozkoak (*eta, ere, gainera...*), 2) hautakariak (*edo, bestela, osterantzean...*), 3) aurkaritzakoak (*baina, ordea, berriz...*), 4) ondoriozkoak (*beraz, bada, hortaz...*) eta 5) kausazkoak (*zeren, zergatik, alabaina...*).

Puntuazio-marken ikuspegitik, hiru multzo handitan bana ditzakegu lokailuak. Mutur batean, inoiz ere koma artean idatzi behar ez direnak; lau dira ohikoenak: *eta, ere, edo* eta *baina –ordea* lokailuaren sinonimo ez denean–. Beste muturrean, normalean koma artean ipintzen direnak: *gainera, bestela, ordea, berriz, beraz, izan ere...* (berehala osatuko dugu zerrenda). Eta tartean, batzuetan komarik gabe eta besteetan koma artean idazten direnak: *behintzat, bederen, behinik behin, gutxie-nez, halaber...*

Lehen multzoa txikia da. Horkoak dira aipatutako lau lokailuak (*eta, ere, edo, baina –ordea* lokailuaren sinonimo ez denean–) *eta, gainera, zeren* eta *bada* –kausazkoa denean–. Antolatzaile hauek ez dira inoiz koma artean idazten.

Hala ere, batzuetan, koma artean ere ikusiko ditugu lokailu horiek; baina ez berez koma artekoak direlako. Hona hemen, adibidez, *Egunkaria*-tik hartutako idazpuru bat (1998.04.30):

Atutxa: “ETAren mezuan zerbait mugitzen da, baina, zoritxarrez, borondatean ez da deus mugitzen”.

Bai: *baina* lokailua koma artean doa; baina ez aurreko koma eta ez ondorengoa doaz berekin. Lehenengoa, izan ere, aurreko esaldi-zatiaren ondorengoa da; eta bigarrena, berriz, *zoritxarrez* tartekiaren hasierakoa.

Horrexegatik, osorik irakurri aurretik, ezin jakin nola ulertu *baina* hori: aurrekoarekin ala ondorengoarekin lotuta. Horregatik, egokiago legoke honela idatzita:

Atutxa: “ETAren mezuan zerbait mugitzen da; baina, zoritxarrez, borondatean ez da deus mugitzen”.

Eta berdin gertatzen da gainerako bost antolatzaileekin ere. Hirugarren puntuan itzuliko gara hona, puntu eta komaren erabileraz jarduterakoan.

Lokailuen hirugarren multzoa, berriz, oso ugaria da. Asko dira, izan ere, normalean koma artean idazten diren lokailuak. Honako hauek dira ohi-koenak:

- Emendiozkoak: *gainera*.
- Hautakariak: *bestela, osterantzean, gainerakoan...*
- Aurkaritzakoak: *ordea, baina* (*ordea* lokailuaren sinonimo denean), *berriz, ostera, aldiz, alabaina, dena dela, dena den, hala ere, hala eta gutziz ere, nolana ere, haatik, horratik...*
- Ondoriozkoak: *beraz, bada, hortaz, honenbestez...*
- Kausazkoak: *izan ere...*

Oharra: ondo bereizi behar da horiek noiz diren lokailu eta noiz ez. Intonazioak eta testuinguruak lagunduko digute horretan. Esaterako:

Hauek berriz etorri dira.

Haiek ez dira etorri; hauek, berriz, bai.

Azken batean, idazle onen lanak irakurritz eta norberak idatziz ikasten da koma bikoitzak ere ipintzen. Adibidez:

–Idazle izan nahi nuke. Zerbait esadazu! –dio karta batean, mutil gazte batek.

Beraz, idazle izan nahi duzu? Bokazioa behar, horretarako. Eta ez, gainera, nolana hiko: barren-barreneraino itsatsia. Bokazio argia, batere dudarik gabekoa.

Aurren-aurrenetik, esan behar dizut ez duzula asko irabaziko ofizio horrekin. Musu-truke lana franko egin beharreko ofizioa. Askoz gehiago irabaziko duzu beste edozer eginahaletan.

Bestalde, gure artean askotan gertatzen dena: txotxolotzat hartuko zaituzte sarritan. Gainera, sentimendu eta samurtasunezko gizona izango zara, noski, eta makina bat aldiz mespretxuak aditu edo nabarituko dituzu inguruan.

Joxe Artetxe (*Irakurbideak*: 122)

Bazuen haizeak, gure zaharrentzat, halako misterio zerbait ere. Haizea, izan ere, ikusi ez baita ikusten. Bere ukitua sumatu bai, ordea, ondotxo.

Julian Alustiza (*Irakurbideak*: 92)

Nahi duzue egia bat jakin? Ez da egundaino izan, ez eta izanen, etsairik gabeko gizonik. Etsairik ez duena ez da gizona: oilo busti bat da; ala, bertzela, bere buruaz baizik axolarik ez duen bat. Oilo bustia ikaraz dago, berak ez dakiela zeren beldurrez, kokoriko. Eta, aldiz, beretzat baizik ez den hura, ez izanik ere beldur, berdin ezdeus da, zerbaitetan laguntzeko haren beharra dukezunean.

Hiriart-Urruty (*Irakurbideak*: 243)

- *Gainerako testu-antolatzaileak*

Baina lokailuek, esan dugunez, testu-markatzaileen sail bat besterik ez dute osatzen. Eta testu-markatzaileak ere sail bat besterik ez dira testu-antolatzaileen baitan.

Dena den, puntuazioa lantzeko abiapuntu egokia eskaintzen digu lokailuen erabilerak. Hemendik erraz pasa gaitezke, beste urrats bat eginez, testu-markatzaileen puntuazioa lantzeraz.

Guztira, bost sailetan bil ditzakegu testu-markatzaileak (ikus .1) (Elosegi, Esnal, 2004: 71).

Lokailu gehienak bezala, koma artean idazten dira gainerako testu-markatzaileak ere. Eta hauetan ere ondo bereizi behar da noiz diren testu-antolatzaile eta noiz ez, intonazioa eta testuingurua lagun. Esaterako:

Presakako lanak egingo ditugu lehenik; gero gerokoak.

Presakako lanak, lehenik, azkar egitekoak dira eta, gainera, ahalik ongien egitekoak.

Esaterako, hona hemen, adibide gisa, arestian idatzitako pasarte bat; orain, lokailuak eta testu-markatzaileak azpimarratuta.

Tarteki-doinua, ordea, ez da hain nabarmena koma arteko guztietan. Esaterako, deikietan.

Izan ere, deikiak –norbaiti edo zerbaiti dei egiteko erabiltzen den izenak-edo- koma tartean joan behar du beti (esaldiaren hasiera edo amaiera ez bada, jakina). Hala ere, pausaldi bakarra egiten delako-edo, askori ahaztu egiten zaio komak ipintzea (gehienetan lehenengoa). Deikiak biak behar ditu, ordea.

Hurrengo urratsak, azkenik, testu-antolatzaile guztiak batera ikustera garamatza. Horretarako, testu luze bat hartzea izango dugu egokiena. Esaterako, “Jainko txikia” artikulua. Lehendik ere landua dugu aldizkari honetan bertan, bitan (Esnal, 2002: 28-32; Elosegi, Esnal, 2004: 72-74). Hona hemen, berriro ere; orain, tartekiak azpimarratuta dituela, mota guztietako testu-antolatzaileak mugarri (lokailu, testu-markatzaile eta gainerako).

<b>INFORMAZIOAREN EGITURATZAILEAK</b>	IRUZKINGILEAK	ba, horiek horrela...
	ORDENATZAILEAK	lehenik / bigarrenik; (alde) bate- tik / bestetik...
	ZEHARKARIAK	hau dela-eta, bide batez...
<b>LOKAILUAK</b>	EMENDIOZKOAK	ere, gainera, bestalde / bertzalde, halaber (orobat, berebat), behin- tzat, bederen, bederik, behinik behin, badere, badarik (ere).
	HAUTAKARIAK	bestela / bertzenaz, osterantzean, gainontzean (gainerakoan, gai- neratikoa, gainerakoz), ezpe- re(n), ezpabere.
	AURKARITZAKOAK	ordea, berriz, ostera, aldiz, aitziz- tik, bizkitartean, bitartean, bien bitartean, (t)arte horretan, arte- an, alta, alabaina, alabadere, dena dela, dena den, hala ere (halere), hala eta guztiz ere, haa- tik / hargatik, horratik / horrega- tik, barren, badarik ere.
	ONDORIOZKOAK	beraz, bada, hortaz, orduan, honenbestez, horrenbestez, hain- bestez, halatan, hala.
	KAUSAZKOAK	zeren, zergatik, alabaina, bada, izan ere.
<b>BIRFORMULATZAI- LEAK</b>	ESPLIKATIBOAK	hau da, hots, alegia...
	ZUZENTZAILEAK	hobeto esan, bestela esan...
	URRUNTZAILEAK	nolanahi (ere)...
	LABURBILTZAILEAK	ondorioz, azken batean, azken finean...
<b>OPERATZAILE ARGUDIOZKOAK</b>	INDARTZAILEAK	benetan, berez...
	ZEHATZAILEAK	adibidez, esate baterako, esate- rako, konparazione, kasu...
<b>BERBALDI-MARKA- TZAILEAK</b>	EPISTEMIKOAK	noski, jakina, omen, ote, agi danean, antza, dirudienez, non- bait...
	DEONTIKOAK	tira, ondo da...
	BESTERATZAILEAK	aizu, aizue...
	METADISKURTSIBOAK	zera, ba...

## Jainko txikia

Gaizki maitatutako haurrak aipatzean, gutxiegi maitatuak etortzen zaizkigu sarritan gogora, baina ez gehiegi maitatuak.

Pozgarrizat jotzen da, gaur, haurra helduaren interesgune bihurtu izana gizarteko zenbait sailetan; baina oraindik zehaztu gabe dago harreman-modu berri horren zer-nolakoa. Gure garaikideei behatzean, ikusten da nola haurra sarri askotan bihurtu den halako jainko berri ukiezin, izaki sakratu, bakoitzak bere txokoa babestu nahi duena, munduko erasoetatik urrun.

“Haurra kontuan hartu”, orduan, “haurra bizitzako erdigune egin” bihurtzen da. Guraso askok aitortzen dute, munduko gauzarik naturalena balitz bezala, beren haurra dela “dena berentzat”, noiz eta gurasoen egitekoak justu guztiz bestelakoa izan beharko lukeenean: beraiek izan haurraren erakarpengune.

Haurrak, desiratua denean, gurasoen *ni* idealaren ofizioa egiten du sarritan: hutsune bat betetzen du, bikotearen garaipenik gorenena bihurtzen da. Eta nork esan ezetz jainko txikiari? Haurra jainko mailan ipinita, ez diote ezer ukatzen, eta gurasoek nahiago dute beren burua zapuztu, haurra zapuztuta ikustea baino. Askok lanbidea aldatzen dute, edo etxea; eta dibortziazera ere iristen dira, haurraren ustezko “mesedetan”. Ordainetan, haurrak gai izan beharko du, jakina, berarengan ipinitako itxaropen izugarriari erantzuteko.

Haurraren gain-gainean egotea, askotan, gurasoen neurosia ezkututzen duen morrontza da. Eta are ezkutuago geratzen da, gainera, giro kulturalaren eraginez eta merkataritzaren presioagatik.

Gure hiri modernoetako bihotzean, parkeak, autobusak, eskola-inguruak, jatetxeak dira kultu berri horren aparteko behatoki. Alde guztietan errepi-katzen da lelo bera: haurra babestu. Bestela esanda: bere ekimenak ito, bere nagikeria indartu.

Jokaera horren oinarrian, bi uste daude, ondorio oso zalantzarriak dituztenak. Batetik, gizakiak ahalik eta neke gutxien jasan behar du era harmonikoan hazteko; eta harmonia, kasu honetan, gehiago da gatazkarik eza, indar osagarrien arteko oreka baino. Bestetik, haurraren egiazko premia, berriz, bat dator berak azaltzen duenarekin eta hau ere bat dator gurasoek premiaz duten ideiarekin.

Beraz, haurrak, jaior orduko, senaz jakingo luke zer den on beretzat. Harrigarria: senaren azalpen hutsera murrizten da kontzientzia. Nolabait, azken mendeko moral victoriarraren gehiegikerien ordaina da.

Moral bitxi honek ukatu egiten ditu psikoanaliaren ekarpenak, nahiz eta bertatik elikatu. Izan ere, psikoanaliarentzat garrantzizkoa da pozak eta nekeak txandatzea, haurrak munduarekin dituen harremanetan.

Frustrazio jakin bat onuragarria izan daiteke, baldin eta gizakiari aukera ematen badio egitura psikikoa garatu eta ezintasun hori gainditzeko eta, ondoren, gero eta hobeto aurre egiteko antzeko egoerei. Frustrazio bat gainditzeko gaitasunari esker egingo da ume koxkorra, astiro-astiro, bere auto-nomiaren jabe.

Baina nola bideratu dinamika hori, non eta haurra etengabe asebetetzera bultzatzen duen giroan?



Helduaren zeregina, lehen-lehenik, haurrari laguntzea da heldu bihurtzen; hau da, laguntzea errealitateari aurre egiten –eta ez bizkar ematen–. Gurasoek, hobe beharrez, hesia jartzen dutenean haurraren eta errealitatearen artean, benetako esperientzia eragozten diote eta erreferentzia egokiak finkatzeko aukerak ukatzen dizkiote.

Nahiz eta haurrarekin hitz egitea beharrezkoa izan, zenbait helduren argibide sistematikoak eta pazientzia neurrigabea, ordea –adibidez, haurraren txorakeria batzuen aurrean–, kaltegarriak izan daitezke haurrarentzat, murriztu egiten baitiote errealitatea oso-osorik atzemateko gaitasuna, eta sinestarazi bizitza beti onbera izango dela bere hutsegiteekin.

Horrela, eragotzi egiten diote munduarekin harreman sentsuala izatea ere, harreman erabat zerebralaren mesedetan. Adibidez: berdin al da jakitea zerbaitek, ukituz gero, min ematen duela, eta ukitu eta mina sentitzea? Haurra, berez, erresistentzien bila dabil, bere burua kokatzeko eta garatzeko. Aurkitu ezean, hutsune horrek sortutako antsiaren aurka erreakzionatuko du bihar edo etzi.

Gure haurrek ez dute ikasten mundura “jaiotzen”, eta jasanezina egiten zaie adoleszentiako aldaketa. Orduan, oso depresio sakona sortzen zaie askotan; eta horri, gainera, halako jarrera zinikoa eta nihilista eransten zaio, lehen bizi izandako gabezia azaltzen ariko balitz bezala: ezer ez du ukitu, ezerk ez du hunkitu, dena zaio higuigarri!

Adoleszente honentzat, erresistentziarik txikiena ere bortizkeria da; bizitzaren indar bizia, jasanezina. Gabeziak jota bizi da, eta egituratzeko –eta ez soilik babesteko– aukera emango dion maitasunaren egarriz; atzera eginenez, ordea, errealitatera eta honen basakeriara iristeko aukeren aurrean. Agresibitatearen eta malenkoniaren erdian harrapaturik, sufritzen dagoen izakiak ezin du bizitzan berak bakarrik aurrera egin.

Hala, gizarte-laguntzaileak, medikuak, psikologoak edo psikoanalistak etsipen mota berri batekin egiten dute topo gero eta gehiagotan. Haurraren arazoen sorburua ez dago zoritxarreko haurtzaro batean, baizik eta, alde-rantziz, haurtzaro *mimatu* batean.

### **3. Urrats gorenak**

Puntuazioa landuz bide luzea egin dugu bai belarriaren agindura, lehen urratsetan, bai belarriaz haratago, urrats erabakigarriak eginez. Baina ez dago dena egina, nahiz aurrera jarraitzeko oinarri sendoak izan.

Oinarri sendo horien gainean egingo ditugu urrats gorenak; batik bat, hiru gai landuz: tartekien erabilera estrategikoa, puntu eta komen erabilera, eta mintzagai hanpatuaren ondorengo koma. Azkenik, oraindik lan-gai geratzen denera begira ipiniko gara.

#### *3.1. Tartekien erabilera estrategikoa*

Oinarrizko bi legeak lantzean aipatu dugu nola idazle onek badakiten,aldi berean, arauak betetzen eta hauen betetzeak sortutako eragozpenak gainditzten. Hala, hitz egitean nahiz idaztean, pausaldi prosodikoa egiten dugu askotan bai subjektuaren eta predikatuaren artean, bai aditzaren eta ondorengo osagarriaren artean. Arauek, ordea, galarazi egiten digute koma bakuna ipintzea leku horietan. Zer egin, batez ere esaldia luzea denean?

Koldo Mitxelenak, esaterako, behin eta berriro erabiltzen zituen tartekiak, bai subjektuaren eta predikatuaren artean, bai aditzaren eta ondorengo osagarriaren artean (Zubimendi; Esnal, 1993: 223-227).

“Jainko txikia” artikuluan ere sarri erabili ohi da estrategia bera. Hala, subjektuaren eta aditzaren artean:

“Haurra kontuan hartu”, orduan, “haurra bizitzako erdigune egin” bihurtzen da.

Haurrak, desiratua denean, gurasoen *ni* idealaren ofizioa egiten du sarritan.

Haurraren gain-gainean egotea, askotan, gurasoen neurosia ezkatzen duen morrontza da.

Harmonia, kasu honetan, gehiago da gatazkarik eza, indar osagarrien arteko oreka baino.

Haurraren egiazko premia, berriz, bat dator berak azaltzen duenarekin.

Haurrak, jaio orduko, senaz jakingo luke zer den on beretzat.

Helduaren zeregina, lehen-lehenik, haurrari laguntzea da heldu bihurtzen.

Gurasoek, hobe beharrez, hesia jartzen dutenean haurraren eta errealitatearen artean, benetako esperientzia eragozten diote eta erreferentzia egokiak finkatzeko aukerak ukatzen dizkiote.

Zenbait helduren argibide sistematikoak eta pazientzia neurrigabea, ordea –adibidez, haurraren txorakeria batzuen aurrean–, kaltegarriak izan daitezke haurrarentzat.

Haurra, berrez, erresistentzien bila dabil, bere burua kokatzeko eta garatzeko.

Eta aditzaren eta ondorengo osagarriaren artean:

Pozgarritzat jotzen da, gaur, haurra helduaren interesgune bihurtu izana gizarteko zenbait sailetan.

Guraso askok aitortzen dute, munduko gauzarik naturalena balitz bezala, beren haurra dela “dena berentzat”.

Haurrak gai izan beharko du, jakina, berarengan ipinitako itxaropen izugarriari erantzuteko.

[Gurasoen morrontza] are ezkutuago geratzen da, gainera, giro kulturalaren eraginez eta merkataritzaren presioagatik.

Frustrazio bat gainditzeko gaitasunari esker egingo da ume kokorra, astiro-astiro, bere autonomiaren jabe.

### 3.2. Puntu eta koma

Bi sail bereiz ditzakegu puntu eta kometan, adierazten duten pausaldi prosodikoaren arabera: beheranzkoak (puntuaren antzekoak dira) eta goranzkoak (komen antzekoak).

#### • *Beheranzkoa*

Beheranzko pausaldiak amaiera adierazten du (amaiera prosodikoa eta semantikoa): esaldi osoarena edo esaldi-zati batena.

Baina esaldia ez da zerbait itxia: lotuta doa aurrekoarekin eta atzekoarekin. Eta (ia) beti gelditzen da ondorengoaren zain. Idazlearen esku egoten da zer-nolako etena (edo jarraipena) adierazi esaldi-zati baten amaieran. Esaterako, honela hasten da “Aresti, igarle” artikulua:

Aurten hogeitau urte hil zen Gabriel Aresti, idazle eta poeta bizkaitarra, harrizko herri hau euskaraz landu eta aitaren etxea defenditu zuen gizon bikaina.

Otsoen kontra, sikatearen kontra, lukurreriaren kontra defenditu zuen aitaren etxea. Galdu zituen aziendak, soloak, pinudiak, korrituak, errentak eta interesak; baina defenditu egin zuen aitaren etxea. Armarik gabe, eskurik gabe, besorik gabe eta bularrik gabe utzi zuten; eta arimarekin defenditu zuen aitaren etxea. Hil zen, Aresti hil zen; baina aitaren etxeak zutik dirau, harri eta herri.

Bigarren lerrokadan, puntu ere bihur zitezkeen hiru puntu eta komak (nekezago, koma). Horrela, estiloz markatuagoa geratzeko litzateke idatzia. Berdin egin zitezkeen, era berean, arestian azaldutako esaldian ere:

Asmo genuenez, elkarrekin bazkaltzera joan ginen; baina Editorrek ez zigun ia jaramonik ere egin guri: alboko mahaiko minigonadun baten izterretara joaten zitzaizkion begiak, eta begien atzetik, gogoa (eta, gero, alde-rantziz).

Adiskide legez, ontzat hartu nion aitoren pozgarri hori. Gaur, hogeitau urteren buruan, bistan da igarle izan genuela Aresti; artean gertatzeko zegoena asmatu egin baitzuen, ezkutuan zegoena igarri, ezezagun zena ezagutu.

Adibide horietan, lokailu eta juntagailu jakinak ikusten ditugu puntu eta komen ondoren: *baina* (hiru aldiz), *eta*, *bait*. Eta antzeko lotura (eta etena) adierazten dute hirurek. Hori bera argi ikusten da, halaber, Axularren testu beraren egokipen banatan:

Urarekin konparatu nahi nuke denbora. Zeren denborak eta urak elkarren irudika handia baitute. Ura beti doa, bata besteari darraika. Iragana aitzina joana da, etorkizuna dator gibeletik, eta aitzinekoak gutxi irauten du aitzinean. Ez du inork iragandako uretik hartzen, ezta etortzeko dagoenetik ere: aitzinekotik behar da hartu, iragatean, presente denean.

Axular (*Irakurbideak*: 162)

Urarekin konparatu nahi nuke denbora; denbora eta ura oso elkarren irudiko baitira. Ura beti doa, bata besteari darraika: iragana aitzina joana da, etorkizuneko dator gibeletik, eta aitzinekoak gutxi irauten du aitzinean. Ez du inork hartzen iragandako uretik; ezta etortzeko dagoenetik ere: aitzinekotik behar da hartu, iragatean, presente denean.

Axular (*Irakurbideak*: 163)

Beste honako bi adibide hauetan, ordea, gehiago adierazten dute lotura etena baino; erlatiboari dagokion lotura:

Osterakoan, isilik itzuli ginen, puska batean, Joseba eta biok. Gero, adiskideak bat-batean jakinarazi zidan sekretua; gaur arte, hogeitau urtez, neuretzat gorde dudana sekretua.

Izan ere, irakurle, adiskide Josebak izenordea erabiltzen baitu literatur lanetan; oso izenorde ospetsua: Bernardo Atxaga.

Ondoren landuko ditugu hauek.

- *Goranzkoa*

Bai: puntuaren eta komaren arteko erdibidean dago puntu eta koma; eta zalantzan sumatzen dugu honi dagokion pausaldi prosodikoa: goranzkoa batzuetan, beheranzkoa bestetan.

Beheranzko puntu eta koma, beheranzko pausalditik hasita landu dugu. Orain, alderantziz landuko dugu goranzkoa: goranzko pausaldi garbitik hasi eta beheranzkora hurbilduz.

### *Zerrendetan*

Lehen urratsetan ikusi dugunez, bi puntu idatzi ohi da zerrenden hasieran. Amaieran, hiru puntu erabili ohi dira batzuetan, zerrendaren luzagarrri, *eta abar* delakoaren ordeztu-edo.

Denok ditugu gogoan horretan [euskarari lege bat ematen] saiatu direnen izenak: Arana, Azkue, Txomin Agirre, Lizardi, Altube, eta abar.

Luis Villasante (*Irakurbideak*: 7)

Gure baserri horien distira hitzez agertzerik ez dago: geure jaioleku, asaben bizileku eta hiltoki, han jaiak, han negarrak, belar onduaren usaina, zakur zaunkalaria, atariko intxaurrendoa...

Jon Andoni Irazusta (*Irakurbideak*: 263)

Zerrendetako osagaiak bereizteko, berriz, bi puntuazio-marka erabiltzen dira: komak (hasieran ikusi dugunez, zerrendetako osagai soilak eta bakunak bereiziz) eta puntu eta komak, orain landuko dugunez.

Komak, zerrenda guztietan ikusiko ditugu; puntu eta komak, ordea, batzuetan; esaterako, zerrendako osagaiak multzoka sailkatzen direnean edo osagaiak soil-soil ematen ez direnean.

Adibidez, bestela ere zerrenda zitzakeen Villasantek euskara arautzen saiatu ziren euskaltzaleak, bereiziz gramatikariak batetik eta literatoak bestetik, puntu eta koma tarteko:

Denok ditugu gogoan horretan [euskarari lege bat ematen] saiatu direnen izenak: Arana, Azkue, Altube; Txomin Agirre, Lizardi; eta abar.

Horrela zerrendatzen dira, besteak beste, kirol-taldeetako jokalarien izenak ere.

Euskadi: Sanzol; Lopez Rekarte, Karanka, Luis Prieto, Iraola; Gurpegi, Aranburu, Gabilondo, Yeste; Etxeberria eta Urzaiz.

*Berria*, 2004.12.30: 28

Irazustak, bestalde, ñabarduraren bat erants zekioken zerrendako osagairen bati, koma bat tartean ipiniz; eta orduan, puntu eta komaz bereziko zituen osagaiak:

Gure baserri horien distira hitzez agertzerik ez dago: geure jaioleku; asaben bizileku eta hiltoki; han jaiak, noiznahi; han negarrak, tarteka; belar onduarren usaina, udan; zakur zaunkalaria, atean; atariko intxaurrondoa...

Eta abar. Asko luza daiteke kasuistika. Baina adibide batzuk ematera mugatuko gara.

Urkiolara joaten dira denak: aberatsak eta txiroak; zindo osasuntsuak eta osasunik gabeak; indargabe jaiotakoak eta hezurren bat hautsi dutenak; herrenak eta itsuak; hankokerrak eta besamotzak; gorrak eta zauriz beteak; totelak eta zapatuak; zorabio, zuldar, legen, ez tul, beherako, minbizi edota handitsu zornatudunak; etsita daudenak eta bizi nahi luketenak; lan bila dabiltzanak eta euri ala eguzki beharrean diren nekazariak; Ameriketara seme-alabaren bat daukaten gurasoak eta gerrara daramaten mutilaren ahaideak; eskolatik etxeratutako mutilak eta ezkontzeagatik mototsa salduko luketen neskatxak...

Txomin Agirre (*Irakurbideak*: 26)

Lau ateraldi egin zituen Santa Kruzek gerrara: lehenengoa, 1872ko apirilaren erdi aldetik azkenera bitartean, karlistek Donezteben armak utzi zituzten arte; bigarrena, urte hartako maiatzetik abuztuaren 12a arte; hirugarrena, 72ko abendutik 73ko uztaile arte; laugarrena, urte hartako bertako abenduaren erditik azkenera arte.

Orixe (*Irakurbideak*: 355)

Denetik landu zuen Orixe idazle handiak: prosa (*Santa Kruz apaiza*, 1929; *Quito-n arrebarekin*, 1950-1954; *Jainkoaren billa*, 1958an amaitu eta 1971n argitaratua), poesia (*Barne muinetan*, 1934; *Euskaldunak*, 1934an amaitu eta 1950ean argitaratua), itzulpenak (*Tormesko itsu-mutilla*, 1929; *Mireio*, 1930; *Urte guziko meza-bezperak*, 1949; *Aitorkizunak*, 1956).

*Irakurbideak*: 365

### *Pausaldi prosodikoak bereizteko*

Lehenago erabili dugu, adibide gisa, *Egunkaria*-n argitaratutako idazpuru hau:

Atutxa: “ETAren mezuan zerbait mugitzen da, baina, zoritxarrez, borondatean ez da deus mugitzen”.

Lehen momentuan, dagoen-dagoenean, ez dakigu nola zatitu esaldia; ez dakigu nori dagokion *baina* hori: aurreko esaldi-zatiari (...mugitzen da, baina) ala ondorengoari (baina, zoritxarrez...). Honelakoetan, ezinbestez, esanahiaz baliatu behar. Baina, hain zuzen, zalantza horiei bide ez emateko erabiltzen dira puntu eta komak. Esaterako, *mugitzen da* aditzaren ondoan ipiniz:

Atutxa: “ETAren mezuan zerbait mugitzen da; baina, zoritxarrez, borondatean ez da deus mugitzen”.

Antzeko zalantza sortzen zaigu, adibidez, *Administrazioa euskaraz* aldizkaritik hartutako esaldi batean ere (22. alea, 16. or.; 1998ko urria):

*Bizkaia* da herrialdearen izena, dirudienez, garai batean *bizkar* hitzaren kidekoa.

Dagoen-dagoenean, zeri dagokio *dirudienez*: herrialdearen izenari ala *bizkar* hitzaren kideko izateari? Hau da, irakurtzean non egin eten nabarmenagoa: *dirudienez* horren aurrean ala atzean? Agerian dago erantzuna; baita nola idatzi ere: puntu eta koma ipiniz koma soilaren orde, pausaldi prosodikoak argi bereizteko:

*Bizkaia* da herrialdearen izena; dirudienez, garai batean *bizkar* hitzaren kidekoa.

Eginkizun hori bera du, testu honetan, puntu eta komak:

Euskarazko idazlerik arlostea neu naiz; baina, neure arlotetasunean, jendearen oso parean jarri nahi nuke. Irakurleek ulertzen ez badidate, alfer-alferrik ari naiz.

Joxe Artetxe (*Irakurbideak*: 114)

Berdin gertatzen da, esaterako, arestian ikusitako bi adibide hauetan ere:

Osterakoan, isilik itzuli ginen, puska batean, Joseba eta biok. Gero, adiskideak bat-batean jakinarazi zidan sekretua; gaur arte, hogeitaz, neuretzat gorde dudana sekretua.

Izan ere, irakurle, adiskide Josebak izenordea erabiltzen baitu literatur lanetan; oso izenorde ospetsua: Bernardo Atxaga.

### *Estilo-baliabide*

Hona iritsita, berriro ere beheranzko puntu eta komen eremuaren mugatik hurbil gabiltza. Ez gara, ordea, kasuistikan sartuko.

Kontuan izan behar dugu, hala ere, idazlearen estiloak eta testu-moldeak ere badutela zerikusirik zeinu hauen erabileran; eta baliabide egokia dela puntu eta koma, esaldiak laburtzeko eta esaldi labur horiei indar berezia emateko; edo, alderantziz. Estilo-kontua, alegia.

Hona hemen, *Irakurbideak* liburuko pasarte batzuk. Lehenengoa, Artetxerena, kazetari-estiloan idatzia, esaldi laburrez (baita aditzik gabeko ere) osatua:

Zuzentasunarengan itxaropen oso-osoa behar du kazetariak. Baita gizonaren arteko senidetasun eta adiskidetasunean uste bete-betea ere. Gizadi osoaren batasunean ere bai.

Kazetariaren hitzak zuzenbidezkoa behar du izan: hitz sendo eta osasungarria, gizonaren bihotza bizkortzeko modukoa.

Ez da lantegi erraza baldintza horiek denak elkarraraztea. Ez, ezta gutxiagorik ere. Zenbait tokitan, batez ere.

Kazetariaren lanbidea munduko zailenetakoa dela esango genuke; zailena ez bada, behintzat.

Joxe Artetxe (*Irakurbideak*: 115)

Axularrena da bigarren pasarte, *Gero* liburutik hartu eta egokitua. Hemen, luzeagoa da esaldia; askoz ere luzeagoa. Adibidez, bigarren esaldiko *gaitz litzateke kontatzea* horren jarraipen da ondorengo guztia, *nola* partikula batzuk lokarri eta puntuazio-marka ezberdinak tarteko.

Erleak, hain gauza tipiak eta flakoak, betetzen du mundua eztiz, gozatzeko, eta ezkoz, argitzeko. Eta *gaitz litzateke kontatzea* nola gobernatzen diren erleak elkarren artean; nola duten beren erregina, eta obeditzen dioten; nola zaharrak aritzen diren, kofauean [erlauntzan] barrera, etxeko lanen egiten; nola gazteak kanpotik aritzen diren beren mantenuaren eta bizigaien garraioan; nola duten beren ataltzaina, eta behar ere bai (zeren eztiari, nola gozoa baita eta izena duen bezala “ezti”, anitz baitarraio eta baitzaio aihier edo oso zale). Nola erle langileek ezten-kolpez egozten dituzten beren konpainiatik lanik egiten ez duten erlamando alferrak eta nagiak. Eta nola bertzerik ere anitz gauza egiten duten, eta guztiak hain ordena handiarekin non baitirudi ezen ez dela erregerik bere erresuma hain ongi gobernatzen duenik, nola erleek beren erreginarekin batean lan eginaz gobernatzen baitute heurera.

Axular (*Irakurbideak*: 169)

### 3.3. Koma, mintzagai hanpatuaren ostean

Euskara lantzean, arreta handia eskaini izan diogu iruzkin hanpatuari (galdegaiari, alegia); apenas, ordea, mintzagai hanpatuari (EGLU I, eranskina: 28-29).

Adibidez, hiru intonazio ezberdinez esan lezake batek “nik bazkaldu dut”: 1) intonazio neutroaz (esaldiaren elementurik hanpatu gabe), 2) iruzkina hanpatuz (*nik* galdegai bihurtuz) eta 3) *nik* mintzagaia hanpatuz. Lehenengo biak berdin idazten dira: komarik gabe; eta irakurlearen esku geratzen da nola irakurri (eta ulertu) asmatzea, testuinguruaren arabera.

Hirugarren kasuan, ordea, koma bat ipintzen da *nik* mintzagai hanpatuaren ondoren:

Nik, bazkaldu dut.

Honelakoetan, “niri dagokidanez, bazkaldu dut” edo antzeko zerbait esaten ari gara.

Koma, berdin jartzen da mintzagai hanpatua subjektua izan ala ez. Beraz, subjektua denean, indarririk gabe geratzen da oinarritzko legeetako lehenengoa: “subjektuaren eta predikatuen arteko pausaldi prosodikoa ez da koma bakunez adierazten” (2.2.).

Mintzagai hanpatua da, adibidez, aurreko lerrokadaren hasierako *koma* hitza; horrexegatik ipini dugu koma bat (,) ondoren, nahiz eta *koma* subjektua izan.

Hona hemen, mintzagai hanpatuaren beste bi adibide gehiago. Lehenengoa, “Arrain txikia” ipuineko *Ozeanoa* (laugarren lerrokadaren hasieran):

### Arrain txikia

Behin batean, arrain batek esan zion beste bati:

–Barkaidazu. Zu ni baino zaharragoa zara eta nik baino gehiago dakizu. Seguru asko, lagundu ahal izango didazu. Esaidazu: non aurki dezaket Ozeano deitzen dioten hori? Bazter guztiak miatu baitituz; alferrik, ordea.

Arrain zaharrak erantzun zion:

–Ozeanoa, orain zauden toki horixe da.

Eta arrain gazteak, triste, esan zion:

–Hau? Baina ura besterik ez da hau... Ni Ozeanoaren bila nabil.

Eta beste nonbait bilatzera joan zen igeri.

Anthony de Mello, *Txoriaren kantua*: 22

Bigarrena, Pako Aristiren poema batetik hartua:

Taberna bat ireki zuen,  
kanpoan bere izen eta guzti:  
“Beckett”.  
Samuel,  
urte hartan bertan  
jaioko zuen semearentzat  
utzi zuen.

Pako Aristi, *Oherako hitzak*: 23


(Bide batez: beste bi mintzagai hanpatu daude arestiko azalpenean: *lehenengoa* eta *bigarrena*; biak dira subjektu eta mintzagai hanpatu; eta koma bana daramate atzean.)

#### 3.4. Aurrera begira

Honaino heldu gara, urratsez urrats, euskalduntzen (nahiz alfabetatzen) ari den helduaren ibilbidean. Ibilbidea ez da amaitu, ordea. Baina, batez ere, ez diogu ibilbide osoari erreparatu. Landu gabe gelditu da, batik bat, koma bakunetako bat, eta garrantzi handikoa: perpaus nagusiaren eta txertatuen artekoa. Eta ez ditugu landu beste marka batzuk ere, askoz errazagoak: parentesia, marra-luzeak eta hiru puntuak (beheranzkoak, nahiz goranzkoak).

Dena den, amaitzeko, lagungarri gerta dakiguke puntuazio-marken ikuspegi orokorra izatea, ibilbidean egindako hiru bereizketa oinarri: 1) pausaldi prosodikoen eta ortografikoen artekoa, 2) puntuazio-marka bikoitzen eta bakunen artekoa eta 3) pausaldi beheranzkoa eta goranzkoa adierazten dutenen puntuazio-marka bakunen artekoa.





## **Bibliografia**

**Elosegi, L., Esnal, P.** 2004. “Euskaltegi-kurrikuluak egiteko jardunbide bat”. *Hizpide* 57.

**Esnal, P.** 2002. Testu-antolatzaileen erabilera estrategikoa. *Hizpide* 51: 19-33.

**Euskaltzaindia: Gramatika batzordea.** 1985. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak- I.* Iruñea: Euskaltzaindia.

**Euskaltzaindia: Gramatika batzordea.** 1987: *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak – I (Eranskina).* Bilbo: Euskaltzaindia.

**Euskaltzaindia: Gramatika batzordea.** 1990. *Euskal Gramatika. Lehen urratsak – III (Lokailuak).* Bilbo: Euskaltzaindia.

**Garzia, J.** 1997. *Joskera lantegi.* Gasteiz: IVAP.

**Zubimendi, J. R., Esnal, P.** 1993. *Idazkera-liburua.* Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

**Zubiri, I., Zubiri, E.** 2000. *Euskal Gramatika Osoa,* Bilbo: Didaktiker.

## **Adibide-iturri nagusia**

**Zubimendi, J. R., Esnal, P.** 1997. *Irakurbideak.* Oiartzun: Sendoa.